

Goierri

294. zenbakia

2006ko urtarrilak 27



Nafarroa Etorbidea 3 behea Tel. 943 086579 BEASAIN

Beasaingo
Valenciaga inmobiliarian,
Donostiako bulegoaren esperientzia
zeure esku jartzen dugu, **Goierri**
zerbitzu inmobiliario onena
eskeintzeko.

VALENCIAGA API
INMOBILIARIA-AGENTZIA

www.valenciaga.es



Txurruka kalea 3-1º Esk.
Tel. 943 430784 DONOSTIA



ITURGINTZA - KALEFAZIOA - GASA
BAINU ETA SUKALDEKO INSTALAKUNTZAK
ETXEBIZITZEKO AIRE EGOKITUAK
BERRIKUNTZA LANAK
GREMIO GUZTIEN ARDURA



SUKALDEKO ETA
BAINUKO ALTZARIAK



BULEGOAK-LANTEGIA
USABAL, 11-A
TOLOSA
Tel.: 943 672 620

POLIURETANOZKO LEIHOAK



ERAKUSKETAK:
SAN FRANTZISKO, 10
TOLOSA
Tel.: 943 653 307



Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:


I. Fdez Ornaburu Dra.
(Medikuntza estetikoan masterra)

A. Ramirez Baigorri Dra.

Kursal
ZENTRO MEDIKUA

943 88 22 51

Garmendia Otaola, 7 - behea
BEASAIN



RPS.:32/04

BERTSOTAN

Hegaztien gripea



Ainhoa Mujika

Hegazti gripez josita Txina
Turkia (e)ta Errusia,
mundu osoan bilakatu da
gaurko berri nagusia.
Hona iritsi daitekeela
jada dugu ikusia,
ez gaude oso ziur halere
a zer kontu itsusia!
Zer pentsa ere ez dakigunez
a zer une biluzia!

Halere hartu beharko dugu
guk aurkako aldarlean,
ezin gaitezke ziplo erori
lehenbiziko golpean.
Etor daiteke benetan gogor
pandemia atakean,
baina gu salbu aurkitzen gara
sendagaien estalpean.
Mamurik ezin inon ikusi
ez dagoen bitartean!

Doinua: Aita izena kanta beharrak.

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L.

Urbialde plaza, 7 - behea
BEASAIN

Posta elektronikoa:

goierritarra@topagunea.com

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga
9. Oñati)

Tirada: 7.000 ale

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

**Goierritarrak ez du bere
gain hartzen derrigorrez,
aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzukizunik.**

AURKIBIDEA

4. Ingurugiro txokoa:

7. Kate motzean: Xabier Urteaga

8. Erreportajea: Idiazabalgo Aita Ipa-
rragirre herri eskolak 25 urte

12. Elkarrizketa: Nerea Garmendia
aktorea

16. Elkarrizketa: Izagirretarrak, ziklo-
kroseko kasta

20. Garai batean...: Artilezko kapu-
sai eta mantarrak

22. Garai batean...: Zepai bertsola-
ria jaio zela 100 urte

23. Agenda.

24. Debaldeko iragarkiak.

26. Argazki zaharra.



Goierritarra Goierriz kanpo
jasotzeko tarifak:

Hego Euskal Herria eta Espainia: urtean 15 euro
Ipar Euskal Herria eta Europa: urtean 27 euro
Europaz kanpo: urtean 39 euro

Goierritarra diruz laguntzen duten erakundeak:

Altzaga, Arama, Gabiria, Gaintza,
Itsasondo, Ormaiztegi Zaldibia eta
Zeraingo udalak



Merkataritza, ez laguntza

Aldarrikapen honekin Hegoaldeko herriek 1964an Nazio Batuetan egindako konferentzi batean, mundu mailan justuagoak izango ziren merkataritza harremanak aldarrikatu zituzten. Honela hasten da Bidezko Merkataritza, Elkartasun Merkataritza edo "Comercio Justo" deritzoguna.

Zer da Bidezko Merkataritza?

Ohiko merkataritzarekiko alternatiba bat da. Azken horren irizpide ekonomiko-en gainetik balore etikoak ditu: alderdi sozial eta ekologikoak. Iparraldearen eta Hegoaldearen artean dauden injustizia egoerekin amaitzeko bide gisa azaltzen zaigu.

Ekoizleentzako irizpideak:

- Soldata duinak eta lan baldintza egokiak.
- Langileen ongizatea hobetu.
- Erabakiak hartu behar direnean langileen partaidetza ziurtatu.
- Beren egitura eta jardueri dagokienez, irekiak izan eta gardentasunez jokatu.
- Merkataritzak emakume, gizon eta haurrengan izan ditzakeen ondorio-erekiko kezka, emakume-

entzako aukera berdintasuna sustatu.

- Giza eskubideak babestut, haur, emakume eta populazio indijenarena bereziki.
- Ingurumenarekiko errespetua. Ingurumenaren babesa eta baliabide naturalen erabilera arrazional eta jasangarria bultzatzen da.

Zer eros daiteke?

Artikuluen aniztasuna gero eta handiagoa da. Bidezko Merkataritza zabaltzen doan heinean. Produktu guztien oinarriko ezaugarria Kalitatea da. Orokorrean hiru ataletan sailka daitezke: elikadura (kafea, txokolatea, tea, azukrea, eztia, rona, mermelada,...). Ehunak (janzteko arropak, tapizak, buruzapiak, etxeko arropak..).

Artisautza (bitxiak, larrukiak, etxeko artikulak, sukaldeko tresnak, otarrak, jostailuak, futbol baloiak, mahai jokoak,...).

Eta prezioak zer?

Orokorrean elikagaien prezioa garestiagoa da, ekoizleari diru gehiago ordaintzen zaiolako. Bidezko prezioak ekoizpen gastu guztiak estali behar ditu eta horretaz gain ekoizleei bizimodu duina izateko aukera eman behar zaio. Eta bigarrenik, elikagaien ohiko banaketarekin alderatuz askoz gutxiago saltzen da ondorioz, garraio gastu eta biltegiatzea asko garestitzen da.

Informazioa non

Informazio honen jatorria SETEM. Garapen, sentsibilizazio eta Bidezko Merkataritzaren inguruko hezkuntzaren bidez nazioarteko elkartasuna sustatzen duen Gobernu Kanpoko Erakundea.

Informazio gehiagorako:

Caritas, InterOxfan
www.setem.org
www.nodo50.org/ocsi
www.ideas.coop

Koro Irazustabarrena

JAKIN BEHARREKOAK

New Yorkeko metro geltokia eguzki energiaz hornitua. Brooklyn-ko metro geltokia eguzki energiaz baliatuko den lehena izango da. Bere eguzki teilatua 2.730 panel fotovoltaikoez osatuko da eta urteko 250.000 vatio sortuko ditu, horien bidez eraikineko behar energetiko osoa asetzea espero delarik.

Culatello d'Oro 10. saria euskal txerriari

(www.slowfood.com). Slow Food Fundazioak sortutako Culatello d'Oro saria, Bidegoiango Pello Urdanpilleta abeltzainak jaso du pasa den uztailan, Italian, euskal txerriaren arraza babesteagatik. Euskal Herria txerriak hanka motzekoak dira eta belarri luzeak eta buruan zein atzealdean mantxa beltzak dituzte. Txerri horren haragiaz txorizoa, solomoa, saltxitxoia zein urdaiazpikoa ekoizten ditu Urdanpilletak.

Uraren kutsadura, europarrak gehien kezkatzen dituen ingurumen arazoa.

Europar Batasuneko 25 estatuetan egindako inkesta batean, uraren kutsadura izan da hiritarrak gehien kezkatzen dituen arazoa. Horrez gain, europarrak informazio gehiago nahi dute, produktu kimikoek osasunean duten eraginaz, transgenikoen erabilpenaz, bioaniztasunaren galeraz eta pestiziden ondorioz sortutako nekazal kutsaduraz.

Bidezko merkataritza

Iparraldearen eta Hegoaldearen artean dauden injustizia egoerekin amaitzeko bide gisa azaltzen zaigu.

www.jakintza.net



Heziketa euskalduna eta eleanitza

Europar saritutako proiektuak

Kalitatezko hezkuntza

Emaitza bikainak

Irakasleria iraunkorra eta

konprometitua

Hautzaindegia

Jangela

Garraioa

INFORMAZIO BILERA

otsailaren 8an (asteazkena)

5:00etan Euskaraz eta 6:30ean Gazteleraz

jakintza**ikastola**

Altamira auzoa z/g - ORDIZIA

943 16 05 40

ordizia@ikastola.net



SUKALDEAN

Porru eta ganbe hojaldrea, marisko saltsarekin



Garbiñe Garmendia
Lazkao Etxe jatetxea
Olaberría

Osagaiak

- Hostore edo hojaldre lamina bat.
- Tipula erdi bat
- 3 porru
- 300 gramo ganba, azalik gabe.
- 3 goilarakada irin.
- 2 baso esne.
- Marisko krema, 3/4 l.
- Olio

Tipula eta porrua jarri egiten, poliki-poliki. Ia eginda dagoenean ganbak bota. Nahasketa eginda dagoela ikustean, irina, esnea eta krema bota. Azken hau probatuz.

Sobratutako krema gero platera apaintzeko utzi.

Hostorea edo hojaldrea moldean zabaldua dugunean masa guztia bota eta labean sartu, 200° C-tan, 20 minutuan, gutxi gorabehera.

Hostorea egindakoan atera, zatikatu eta platerean

jarri krema bero pixka batekin.

Marisko krema egiteko, tipula, azenarioa, porrua eta tomate heldu txiki bat egiten jarri. Aparte, 200 gr. ganba (azal eta guzti) zartagian olio pixka batekin ondo berotu eta koñaka bota. Flanbeatu, sua eman koñaka erre dadin. Ganbak barazkiari bota. Ondoren, arroza eta azkenik ura. 20 minutuan irakiten eduki, gatza bota eta turmixean pasatu.

MULTIOPTICAS

bonardi

armazoi berriak

38€

Orain Bonardi izan zaitezke zu ere...

Sustapen honek 06/01/02tik 06/02/28ra arte balio du.

J. Carlos Guerra 1 Tel.: 943 79 29 95 ARRASATE	Ibargarai 16 Tel.: 943 76 15 75 BERGARA	Bidebarrieta 2 Tel.: 943 20 05 22 EIBAR	C/ Nueva 15 - GROS Tel.: 943 32 66 49 DONOSTIA	Koldo Mitxelena, 7 Tel.: 943 51 78 11 ERRETERIA	Mendibil M. G. Tel.: 943 63 99 01 IRUN	J.M. Barandiaran Enp. Tel.: 943 88 99 88 ORDIZIA	San Frantzisko 23 Tel. 943 69 84 70 TOLOSA
---	--	--	---	--	---	---	---



“Hotza Sanblasetan? Zeinek kontatu dizue hori?”

Eta zailena?

Jose Maria Setienena eta kazetariekin egindakoa.

Zein da eman duzun albisterik gogorrena?

Ezbeharrekin eta heriotzarekin lotutakoak. Gogoan ditut, bereziki, irailaren 11ko atentatuak.

Eta politena?

Azkena, Atxagaren ‘Obaba’ Armendarizek zinera nola eraman duen kontatzea.

Gustura emango zenukeen albiste bat:

‘Obabak’ Oskar irabazi duela.

Kazetari batentzat euskaraz lan egitea erraza al da?

Zaila da. Guk bi hizkuntzatan lan egiten dugu eta euskal hiztunak aurkitzea ez da erraza izaten. Dakiten askok, gainera, gaztelaraz egiten dituzte adierazpenak. Askotan prentsaurrekoetan euskaraz galdetu eta kazetari batzuk beraien artean hizketan hasten dira, hortik atera kontuak.

Festarako aukerarik izango al duzu?

Gutxi. Asteburuko txandan aritzen naiz lanean.

San Blas jaietako ekitaldirik gustukoena:

Nik parte hartu dudanetatik txistularien alardea.

San Blasetarako plan bat:

Asko prestatu gabekoa: kafea hartu eta buelta “txiki” bat ematera atera, eta ezustean hurrengo goizean beste kafe bat hartuz bukatzen den gaua.

Hotzari aurre egiteko sekretua:

Hotza Sanblasetan? Zeinek kontatu dizue hori?

Telebista, irratia ala prentsa idatzia duzu nahiago?

Telebista, irratia eta prentsa idatzia, orden horretan. Kazetaritza egiteko modu ezberdinak dira, bakoitzak ditu alde onak eta txarrak.

Batez ere informatiboetan aritu izan zara. Zein gai duzu gustukoen? Politika, ekonomia, gizarte, kultura.... Politika eta kultura.

Objetibotasunik existitzen al da?

Erabatekoa ez. Baina, ez-obejtibotasun horretan jokatzeko modu asko dago.

Kamara atzean ala aurrean gusturago?

Kamara atzean egiten dut lanaren %90 eta hala gustura nago.

Moderatzaile lanetan ere aritzen zara Idiazabalgo ‘Ganbarako Tertulietan’. Nor izan da errazena zuzentzen?

Arzak, Berasategi, Zalakain hirukotea eta Carod-Rovira, ikusmin handia piztu zuen tertuliak, baina erraztasun asko eman zizkidan berak.

Aseguru konneduria

SEGURUEN PROFESIONALAK

MUNDUATE

Elosegi, 1- behea
Tfnoa.: 943 88 86 20
Tfno. mugikorra: 609 49 14 41
Faxa: 943 88 91 18
LAZKAO

T
O
L
A
R
E



SAGARDOTEGIA

☎ 943 18 01 19
ATAUN



1975ean jaiotak, Herri Eskolako lehen promozioa.

Idiazabalgo Aita Iparragirre herri-eskolak 25 urte:

"Herriarentzat ona izan da herrian eskola bakarra izatea"

Herrian zeuden bi ikastetxek bat egin eta duela 25 urte sortu zen Aita Iparragirre Herri-eskola. Ikasturte osoan ospakizun ekitaldiak ari dira burutzen idiazabaldarrak eta

ekaina bitartean ere hala egingo dute. Horietako ekitaldi bat, ikastetxearen historia biltzen duen liburua izango da. Eunate eta Oihane Elio ikasle ohiek, bildu eta idatzi dute historia.

ZUGAZTIBI
AHOLKULARITZA

txekin
www.txekin.net

zugaztibi@telefonica.net
Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58
Faxa: 943 16 15 58
Domingo Unanue plaza, 2 behea
ORDIZIA

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble
- Inmueble agentzia

9:30etik 19:00etara
EGUERDIZ IREKITA

Pottoka
KAFETEGIA

• Pottoka kafe etxerakoak
• Ogitaratekoak


Idiazabalgo Aita Iparragirre sortu zeneko 25. urteurrena dela eta, bere historia bilduko zuen liburua egiteko beka kaleratu zuen ikastetxeak. Eunate eta Oihane Elio ikasle ohiek beka eskuratu eta beraiek izan dira, herri-eskolaren historia bildu, jaso eta idatzi dutenak. Azken batean, Idiazabalen historia-ren zati bat. Ekaina aldean egongo da kanean liburua.

Ikastetxearen egitasmoa, hezkuntza, herriari eman diona eta partaideen iritziak bildu dituzte, guztia ere argazki ugariz lagunduta.

Eunate bera, Aita Iparragirre herri-eskolaren lehenengo promozioiko ikaslea da. Oihane, berriz, Logse legea indarrean jarri eta 12 urterekin herritik atera behar izan zuen lehenengo taldekoa.

Bientzat ere lan aberasgarria eta interesgarria izan dela diote. Ikasle garaiko hainbat oroitzapen berritzearekin batera, ikastetxearen historia gertu-gertutik eza-gutzeko aukera izan baitute.

Eunatek adierazi digunez, “niretzat interesgarriena, nola sortu zen jakitea izan da. Ni herri-eskolaren lehenengo promoziokoa naiz eta ni hasterako dena egina zegoen. Beraz, aurretik zegoena jakitea oso interesgarria izan da”. Oihanek gaineratu duenez, “jendeak dauzkan oroitzapenak entzutea ere oso polita izan da”. Horietako oroitzapen bat gogoratu digu Eunatek: gimnasia egin ondoren, basokada bat esne edaten omen zuten, esnea edaten ikasteko kanpainaren barruan.



Eunate eta Oihane Elio ikasle obiak beka eskuratu eta beraiek izan dira, herri-eskolaren historia bildu, jaso eta idatzi dutenak.

Sorrera

Eskola Nazionalaren eta Ikastola arteko bategitetik sortu zen Herri-eskola. Eunatek gogoratu duenez, “alde batetik, Eskola Nazionala, Franco garaiko eskola, eskola tradizionala zegoen. Bestetik, 60. eko hamarkada erdialdean sortu zen Ikastola. Francoren erregimenaren aurka, euskaraz erakutsi nahian sortu ziren Ikastolak, klandestinatatean. Apaizetxean hasi ziren, ikasle gutxiarekin eta Eskola Nazionaleko kartilla zeukaten”.

Dozenaren bat urtean bi ikastetxe izan ziren Idiazabalen. “Baina ikusten zen, 2.000 biztanleko herri batean ez zegoela nahikoa ikasle bi ikastetxe mantentzeko. Ikasleak gutxi ziren, irakas-

leak ere gutxi, dirua ere bai...”.

Horrekin batera, “herria bi komunitatetan banatzen zen, ikastetxearen arabera. Arazo ekonomikoak, herrian sortzen zen zatiketa eta aldaketa politikoak eragin zuen elkartzea eta Herri-Eskola sortzea. Franco hil ondoren, Eusko Jaurlaritzak Hezkuntza eskumena hartu eta bere hezkuntza sistema sortzen hasi zen. Orduan erabaki zen eskola publikoa eta euskalduna izatea. Beraz, bi eskolen alde onak hartu eta batean elkartu ziren”, gaineratu dute Elio ahizpek.

1978. urtean hasi ziren harremanak eta bategitzea, 1980-81 ikasturtean gauzatu zen. “Dena den, transizio hori pixkanakakoa izan

zen. Lehenengo eskolaurrea bateratu zen, zaharrenek beraien bidea jarraitu zuten”, zehaztu dute.

Onurak

Liburua idazteko garaian herriko gizarte-eragile ugariarekin egon dira Elio ahizpak eta guztiak ere bat datoz, Herri-eskola sortzeak herriari ekarri dion onuraz. “Euskararentzako ona izan da eta herriarentzako ere bai, elkartu egin delako. Hasieran, zalantza asko bazuden ere, berehala ikusi zuten asmatu zela eta aurrera egin zuten. Alderdi ekonomikotik ere bai” diote.

Hezkuntza

14 urte arteko hezkuntza eskaintzen hasi zen Aita Iparragirre. Dena den, Log-

LEIAR

KRISTALDEGIA
ERAKUSKETA:
Ezkiaga Pasealekua z/g
☎ 943 88 88 24
BILTEGIA:
Salbatore Industrialdea
☎ 943 88 60 70
BEASAIN

Joxi
Iturgintza - Berogintza - Gasa

Carrefour
merkatalgunea
Tel. - faxa:
943 88 19 87
676 178 488
OLABERRIA

se legea indarrean sartu zenetik, 12 urtera arteko hezkuntza eskaintzen du.

Urte hauetan guztietan, "hezkuntza metodologia ere aldatu da. Aldaketarik handiena, Logse legea indarrean sartu zenean izan omen zen. Metodologia aldatu zen, liburuen erabilera gutxitu zen, eskolak emateko modua ere bai...", diote.

Gaur egun eskola inklusiboa lantzen ari dira. "Gurasoen parte hartze handiago lortu nahi dute, hobetzen jarraitzeko".

Izena

Eskolaren izena jartzeko garaian, bi aukera erabili zituzten idiazabaldarrek ahotan: Zepai eta Aita Iparragirre. Oihanek dioenez, "auzoari Zepai izena jarri ziotela eta, azkenean Aita Iparragirre jarri zioten izena. Idiazabalen historia idatzi zuen apaiza izan zen".

Eraikina

Eskola Nazionalak gaur egun Kultur Etxea dagoen eraikinean zegoen eta Ikastola, Zigor auzoan. Eraikin berria egin zenean, Eskola Nazionala bertara joan zen eta Ikastola Kultur Etxera pasatu zen. Herri Eskola eraikin berrian hasi zen, urte pare bat lehenago eraiki zen.

Ospakizun ugari

Zilarrezko ezteiak ospatzeko ekitaldi ugari ari dira



Goiko argazkian, 2002ko inauteriak: Eskolak 1983an berreskuratu zituen inauteriak eta ordutik urtero ospatzen dute.

Eskuineko argazkian: 2004-05 ikasturte amaieran, baurrak. 25 urte bete zituen orduan eskolak.

egiten ikasturte honetan. Orain arteko ekintzetan, Euskadiko Gazte Orkestraren kontzertua izan da arrakastatsuenak. 400 lagun inguru bildu ziren bertan.

Ekaina bitartean beste hainbat ekitaldi ere izango dira, tartean, liburuaren aurkezpena, eta gaurko eta atzoko ikasle eta irakasleen bazkaria.



SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA

Mota guztietako gida-baimenak

Aita Urdaneta
ORDIZIA
☎ 943 88 72 76

MUJKA 19

MUJKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA

KONTSULTORIO
MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako
mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko tfnoa: 943 08 55 60
Faxa: 943 08 55 61
Nafarroa Etorbidea, 25 - 2.
BEASAIN

Betiko irakasleak

Aita Iparragirre Herri-eskola sortu zenetik, bertako irakasleak dira Jose Luis Elio eta Gurutze Baztarrika. Miren Urteaga eta Ima Aristimuño ere beranduxeago sartu ziren Herri-eskolan, baina Ikastolaren sorreratik herrian izan diren bi andereñoak dira. 25 urte beranduago, ikasle ohien seme-alaben irakasleak dira dagoeneko.

Gurutze Baztarrikak gogoratu duenez: “3 urteko gela Hezkuntza Delegaritzak ez zuen onartzen edo ez zuen martxan jarria. Ikastolak 3 urteko haurrak hartzen zituen eta Eskola Nazionalak ere bai, konpetentzia zela eta. Bategitea egin zenean, Miren eta Ima 3 urtekoen gelan gelditu ziren. 3 urteko gela hori, urte batzutan, eskolarekin egon zen, baina aldi berean ez”.

Miren Urteagak gehixegoratu du: “Ikastolen sorreran gehienak titulurik gabeko andereñoak ginen. Gu Beasaingo Alkartasuna Lizeoaren menpe geunden. Herri-eskolan sartzeko titulua ateratzea beharrezkoa izan genuen”.

Naturaltsaun osoz

Lau irakasleak bat datoz, herrian eskola bakarra izatea denentzat hobea izan



dela esatean. “Herria txikia izanik bi eskola egonda, herrian sakabanaketa handia zegoen: eskolako eta ikastolako umeak eta gurasoak. Bi komunitate bezalazeuden eta herri txikia izanik oso garbia zen. Konpetentzia handia zegoen ikasleak erakartzeko. Koadrilak ere markatzen hasita zeuden. Alde horretatik herriari mesede izugarria egin dio”.

Hori bai, bategitearen gaian errezelo handiak izan zirela gogoratu du Gurutze Baztarrikak: “hasieran beldur edo errezelo handiak izan ziren. Ez zen erraza izan. Lehenengo saiakeran ez zen lortu bategitea. Bi aldetatik zeuden errezeloak: Eskola Nazionalekoek Ikastolari bazioten erreze-

loa, euskara hurrek bazekitela esaten zuten... Ikastolako gurasoen aldetik ere baziren beste errezelo batzuk: Eskola Nazionala erabat espainola zela... Transizio garaia orduantxe zen eta zalantza asko izan zen”. Hala ere, zalantzak berehala uxatu zirela diote. “Oso natural joan zen dena”, gaineratu dute.

Bategitearekin Beasaingo Lizeoak ere izan zuen loturarik. “Ikasleak galdu zituen. Idiazabal izan zen Herri-eskola sortzen lehenengoa baina gehiago ere baziren eta ikasleak galtzeko beldurra zuten. Matrikula asko jaitsi zen eta eragin handia zeukan Lizeon ere. 4. mailan joaten ziren Beasaina. Herri-eskolen 14 urtera arteko eskaintza ber-

matu zen. Hori ere pausohandia izan zen”.

Logse legea indarrean sartu zenean berriz ere aldaketak izan ziren, 12 urterekin Beasaina joan behar baitzuten ikasleek. Goi mailetako irakasleek maila bajuagoetara ohitu behar izan zuten.

Miren Urteagak Ikastolek izan zuten beldur bat ere azaldu digu: “Ikastolek bazuten beste beldur bat: metodologia aldetik aldaketa handirik izango ote zen. Baina ez zen aldaketa handirik izan”.

Jose Luis Eliok gaineratu duenez, “irakasle berri gazte asko sartu ginen eta bakoitzak bere metodoak ekarri zituen. Ez zen inolako arazorik izan, oso natural joan zen dena”.



Mendizabal, C.B.
ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki)
659 644 221 (Xabi)

Txindoki, 23 - 4. ezk. ZALDIBIA




ANZIZAR, S. A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**



Beasain-Zumarraga, 46 Km.a **BEASAIN**
www.anzizar.com ☎ 943 88 17 00 Faxa.: 943 88 48



Nerea Garmendia:

“Laburra izan da
‘Made in China’-
rena, baina oso
gustura aritu gara”

Euskal Telebistako ‘Vaya Semanita’ saioan egin zen ezaguna Nerea Garmendia beasaindarra. Television Española-ren bitartez ‘Made in China’ saioarekin eman du Espai-

nia alderako saltoa. Momentuz, labur samarra izan da, audientzia kontuengatik saioa kendu egin dutelako. Dena den esperientziarekin gustura eta proiektu berrien zain dago Nerea.



Osinalde s.l.

DESGUAZEA

Tel.: 943 16 22 07 car.osinalde@terra.es
943 88 70 48 Igara industrialdea, z/g
Faxa: 943 88 28 01 ORMAIZTEGI


EGA, Osakidetzako azterketak,
Hizkuntza-eskakizunak...
prestatzeko ikastaroak.

MATRIKULA ZABALIK

Informazioa eta matrikula:

Beasaingo Udal Euskaltegia

Loinazko San Martin Plaza Beasain
Tel.: 943 028 100 zuzendaritza@beasain.net





Beasaindik Donostiara

10 urte zituela joan zen Nerea Garmendia Donostiara bizitzera. Garai hartan, handitan, abokatu izan nahi zuen. Baina, Donostian, argia piztu, eta aktore izan nahi zuela erabaki zuen. "Txikitan oso itxia nintzen, oso neurekoia, gero ez dakit, 14-15 urterekin, aldatu egin nintzen, errebelatu-edo egin nintzen. Beasainen bizi nintzenean, Nerea lasaiagoa zen, bizitza begiratzea gustatzen zitzaion pertsona bat nintzen. Donostiara etorrita, txikitan jaso nuen informazio guztia, bat-batean lehertzea bezala izan zen. Bat-batean, aktore izan nahi nuen. Jendea eta egoerak begiratu eta aztertzea izan da ere 'Vaya Semanita'-ren lana. Gidoigileak oso obserbatzaileak dira, eguneroko gauza txikiak begiratu eta hortik ateratzen dira esketx asko".

Beasaingo oroitzapenak oso gogoan ditu. Esate baterako, Naiara Azkonarekin batera, La Salle ikastetxean sartu zen lehenengo neska izan zen Nerea. "Kuriosoa izan zen. Mutilekin oso ondo konpontzen naiz, askotan, neska askorekin baino hobeto. Nik uste horregatik izan daitekeela, mutilekin hazi naizelako, ez marimutil moduan, baizik eta beraien izakera ulertzen jakin dut. Gustatzen zait, bai nesketatik eta bai mutiletatik zerbait jasotzea".

Beasaindar izanda, izendapen berezi bat ere badu: Odolkiaren kofrade izendatu baitzuten 2005. urtean. "Oso odolki zalea naiz. Txikitan janaria ez nuen estimatzen. Kofrade egiteko deitu zidatenean, oso gustura jaso nuen. Nire kideekin joan nintzen eta oso harro sentitu nintzen, oso arraro ere bai".

Ibilbide laburra izan du 'Made in China' saioak TVEn. Zerk huts egin du?

Ez da nahi zen audientziarik lortu. Ostiraletan emititzen zen eta egun txarra zen. Telebistako arduradunekonartu dute, programazioan huts egin dutela, eta guk ez dugu lortu behar zen audientziarik. Beraz, gauza bategatik eta besteagatik, akatsa onartu behar izan dugu eta kendu egin dute.

Formula ez da ulertu...

Formula baino gehiago, egun eta ordu txarra izan dira akatsak. Guk geneukan publikoa ez zen hori. Guk orain arte egiten genuen

saioa publiko guztiarentzat izaten zen, baina normalean ordu horretan telebista ikusten ari denak ez du horrelako saiurik ikusten. 'Homo zapping' ordubetea ikusita, ez dut uste jarraian 'Made in China' ikusteko gogorik izango dutenik. Programaren edukiak edo formulak baino zerikusi gehiago eduki du egunak eta orduak. Dena den, saioa ona edo oso ona izango baltz beste egun batera pasatuko zuten baina ez zegoen beste tarterik eta horretan gelditu da.

Esperientzia motza izan da...

Baina polita. Lanean utzi di-

gute, nahi genituen gaiak landu ditugu... Denbora motza izan da baina oso gustura aritu gara.

Orain zein asmo duzu?

Orain oporretan dago. Dena den, TVErekin beste proiektu bat dago, oraindik ez dakigu aterako den ala ez, beraiek euren errua dela onartu baitute. Ez utela asmatu onartu dute. Beraz, beste zerbaitekin ahalegintzeko asmoa daukate. Proiektu horretan ari dira. Bitartean, opor batzuk ere ez zaizkit gaizki etorriko. Beste proiektu batzuk ere baditut eskuartean baina badaezpada ere ez dut ezertan konprometitu nahi,

TVEren proiektu hori aurrera ateraz gero gustatuko bailitzaideke jarraitzea.

Aldaketa handia izan al zen 'Vaya Semanita'-tik 'Made in China'-ra?

Katearen aldaketa izan zen. Kate batek gauza batzuk eskatzen ditu eta besteak beste batzuk. ETB-ek hasieran ez zekien zein saio egin behar genuen, eta kontrolatzea normala da. Kate honek berdin egon gara. Ez gintuzten ezagutzen eta gauza batzuekin beldurra izaten da eta pixkanaka joan behar da. Lekua bilatzen aritu izan gara. 'Made in Chinan' gai gehiago geneuzkan lantzeko, jende

Autowag



☎ 943 888 254

☎ 943 888 266

Faxa: 943 888 105

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN

mota gehiago baitago. 'Vaya Semanita'-rekin asegurutuagoa geneukan, euskaldunak ginen, denok multzo berdinean geunden eta ziurrago geneukan. 'Made in China'-rekin pentsaera gehiago zeuden kontuan hartzeko, gai gehiago, tabu gehiago...

Hori bai, lanean jende berdintsua aritu ginen. Horretan ez geneukan aldaketarik. Oso giro ona daukagu. Lana egiteko go-go handia ere bai.

'Vaya Semanita' jarraitzen al duzu?

Bai, noski. Lagunak gara eta lagunekin harremana daukat. Jendeak haserretuta gaudela pentsatzen du, baina azken batean, lan bat da, erabaki bat.

Gertatu dena da, bide bat atera dela eta batzuk aukera hori egin dugula. Nik uste denontzat aberatsa dela gauza ezberdinak egitea.

Zenbat eta lan ezberdin gehiago edukitzeko aukera eduki orduan eta hobeto. Aberastu egiten du. Eta aktoreok, sailkatzeko beldurra edukitzen dugu beti. Bi urtez egon gara 'Vaya Semanita'-rekin, niregatik bizitza guztia, baina azkenean, aktore bezala ez zaitu aberasten denbora guztian gauza berdinak egiten egonda. Aurrerapauso bat da 'Made in China'.

'Vaya Semanita'-rekin egin zara ospetsu. Zein da 'Vaya Semanita'-ren arrakastaren sekretua?

Ospea baino, gizarte hau mugitu egin dugu. Nik uste ez naizela egin ospetsu telebistan ateratzen naizelako, aurretik ere telebistan ari tuak garelako gehienok, denok elkartu eta nahi gabe, arrakasta hau lortu dugu, baina batik bat, gizarteko tabuak kanpora bota ditugulako, jende guztiak ikusten duena topikorik gabe esan dugulako, barre egiten erakutsi dugulako. Arrakastaren sekretua hori izan da.



Ez da fama gehiago, uste dut, 'Vaya Semanita'-ko aktoreok beste begi batzuekin ikusi izan gaituztela, ez famatuak bezala, baizik eta maitasun batekin, hain gertuko gaiak landuta, gertuago sentitzen gaituzte. Jendeari, askotan, nire aurpegia ezaguna egiten zaio, baina kosta egiten zaio nondik ezagutzen nauten jakitea. Politagoa da, telebistan ateratze hutsagatik bakarrik izatea baino.

Autografoa asko eskatzen al dizkizu jendeak?

Batzutan bai. Nik uste auto-

grafoak pertsonaia bati eskatzen diotela, eta ez pertsonari.

Pertsonatik pertsonaiera ezberdintasun handia al zegoen?

Nerea eta Maiteren artean bai behintzat. Parodiatu egiten da, ez da egitazko istoriorik antzezten. Ni bizitza errealean ez naiz horrelakoa. Lasaiagoa naiz, ez naiz egun guztian jendea musukatzen aritzen... rol edo perfil bat jartzen dizute eta jendeak batzutan enkasillatu egiten du. Gauza ezberdinak egiten saiatzen zara.

Neska politaren papera, drograzalearena... aktore batek paper ezberdinak egin behar ditu.

'Vaya Semanita'-ren aurretik zertan aritu izan zara?

Donostian, Joxe Felipe Auzmendiarekin 'Easy Peasy'-n hasi nintzen, azafata aurkezle laguntzaile moduan, gero 'KTM' gazteentzako zuzeneko saioa, Hasiberriak iritsi zen. Tartean, beti egiten dira gauzak, laburmetraiak direla, publizitatea... 'Hasiberriak'-en bi denboraldi egon ginen, oinarritzko ikasketak bukatu, bitartean antzerkia ere ikasi nuen, Madril joan nintzen antzerki ikasketak egitera. Hiru urtez egon ondoren, 'Vaya Semanita' hasi zen eta etorri egin nintzen. Momentu hartan ez nintzen ezer egiten Madrilan eta Donostiara itzuli nintzen. Denbora luzeegian ezer egin gabe egoenez gero, beldur eszenikoa bezala sortzen da, gelditu egiten zara. Donostian jarraitzen dut eta oso gustura nago. Made in China ere Donostiatik egiten dugu eta. Bitartean, Sara Montielkin 'Marbelouse'-n kanpainan egin nuen, Dolce Gabanarekin publizitate kanpainan egin nuen eta gauza txikiak. 'Fuentes y Compañían' 'interbentzio txiki bat egin nuen...

Gustuen non sentitu zara?

'Vaya Semanita'-n. 'Hasiberriak' izan zen, aktore bezala egin nuen lehenengo gauza. Oso ondo egon zen, egunero lan egiten baitzen, ikasten hasi nintzen, bai teoria eta bai praktika. Madrilan, laburmetraia asko egin nituen. Donostiara 'Vaya Semanita'-rekin itzuli, eta gozatu egin dut. Ikasi eta oinarria hartuta, orain gozitzen ari naiz.

Euskaraz eta erdaraz aritu izan zara.

Hori lujoa izan da. 'Vaya Semanita' erdaraz egindako

lehen lan luzea izan da. Ordura arte, lan motzak egin izan nituen. Hasieran nire burua oso arraroa ikusten nuen. Nire burua euskaraz ikustera ohituta nengoen eta bat-batean erdaraz aritzea, arraroa zen. Baina polita da bi esparrutan lan egitea. Nire ama hizkuntza euskara eta niretzat polita goa eta neureagoa, euskaraz lan egitea da. Baina erdara ere landu egin behar da, bideak irekitzeko.

Gazteleraz egiterakoan, euskaldunon azentuarekin zer moduz moldatzen zara?

Madrilen nengoenean, suabizatu egiten nuen. Baina Madrilen bizitzen bi euskaldunekin egon nintzen eta inoiz baino euskaldunago sentitzen nintzen. Euskadi faltan botatzen nuen eta etxean orduan euskaldunago egiten nintzen. Nahiz eta azentoa suabizatu, izea eta abizena ezin ditut disimulatu. Nahi ere ez dut nahi, oso harro bainago euskaldun izateaz, ez dut ezkutatu nahi.

Azkenaldian euskaldun aktoreak modan daude Madrilen.

Euskaldunak eta argentina-rrak.

Aktore bezala, zein da zure ametsa?

Ametsik garrantzitsuena da, hil arte, aktore izaten jarraitzea. Baina oso zaila da aktore bezala irautea edo aktore bizitza edukitzea.

Aktore bat:

Gizonezkoetan, Jabier Bardem. Emakumezkoetan, Kate Hudson. Maria Agnes asko gustatzen zait, komika bezala.

Pelikula bat:

‘Siete reinas’ ikusteko go goa daukat, kritika ona egin diote. Ikusitakoren baten artean, ez dakit zein esan. Azkenaldian ikusi ditudan ez zaizkit gehiegi gustatu. ‘Los niños del coro’ esango dut.

Lankide bat:

Robert de Niro eta Susan Sarandon.

Antzerkia, zinea ala telebista?

Hiruetan lana seguru edukita, antzerkia. Aktore moduan, gehiena betetzen zaituena da eta intimitatea edukitzeko aukera ematen du. Telebistan, zuzenekoan batez ere, adrenalina mugitzen da. Baina intimitate asko galtzen da eta aurpegia ere agian asko erretzen da. Zinea, oso goian dago. Aktore moduan lan polita da, keinu gutxirekin gauza asko espresatu behar dira, baina antzerkiarekin ez dauka zerikusirik. Zinema oso gutxi dago eta zinemaz bizitzea oso zaila da. Aktore ona izanez gero, intimitaterik ez da izaten. Pertsona bezala oso garrantzitsua da norbere intimitatea edukitzea.

Antzerkiko aktore asko, oso-oso onak izanda, ez dira ezagutzen. Madrilen



gehiago ezagutzen dira, antzerkia askoz ere garatuago dago eta. Gaur egun jende gutxi joaten da antzokiara. Telebistan, saio edo pertsonaia polita tokatzen bazaizu ondo, demostratzeko modua badaukazu, jende askok ikusten duelako. Zineman, zinera iritsiz gero, hobe zarela dirudi. Zinemakoek onenak direla dirudite, telebistakoak hainbestekoak eta antzerki-koak gutxietsi egiten dira. Eta askotan zailagoa da antzerki on bat egitea, zinera-ko pelikula bat egitea baino. Gaur egun zinema egiteko diru asko sartzen da eta dena oso polita jartzen da. Orduan, inguruan, pelikula bat egiten da, oso polita eta oso arrosa.


Intimitatea faltan nabari duzu?

Bai, zenbait momentutan bai. Baina beste aldetik, jendea etortzen den modua oso polita da eta ez da batere gaiztoa. Ondo eramaten da.

Bat aukeratzekotan, Beasain ala Donostia?

Nire bizitzan denbora gehien pasatu dudana lekua Donostia izan da baina ni beasaindar sentitzen naiz. Beasaingo oroitzapenak oso-oso onak dira. Donostiak dena dauka, herri handi bat eta hiri txiki bat da, polita da. Baina ni oso herrikoia naiz. Askok gustatzen zait etxetik atera eta bizilaguna agurtzea, dendariarekin hitz egitea... Familiartasun hori gustatzen zait. Donostiako lagun guztiek beraien herria daukate eta nire herria Beasain da. Biekin gelditzen naiz.


SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGOIA
KOL. Zka: 649 RPS: 144/02



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)


aulia
TOLARE
SAGARDOTEGIA

☎ 943 80 60 66
Aulia-enea
LEGORRETA

oskarbi
oinetakoa

◀ ▶ ▲ ▼ ◀▶ ▶◀ ◀▶▶ ▶◀◀

Jose Ramon , Gorka eta Jon aita-semeak
Izagirretarrak, ziklo-kroseko kasta



Txirrindularitzarekin, ziklo-krosekin lotutako deitura da Izagirre. Jose Ramon, Gorka eta Jon pelota zaleak izanagatik, txirrin-

dularitzaren aldeko apustua egindakoa dira hiru ormaiztegiarrek. Bi belaunalditako Izagirretarrak bildu ditugu, hurrengo orriotan.

GRAFICAS
EGUZKI
 INPRIMATEGIA

NAFARROA ETOR, 17
 T/F 943 88 94 82

KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN

☎ 943 02 73 58
 Faxa: 943 02 79 39
 San Inazio, 5
 BEASAIN

ZUZENKI
 A HOLKULARITZA

Abokatuak
Enpresen asesoria
eta gestioa

Tel/Faxa: 943 162 393
 e.posta: zuzenki@euskalnet .net
 Hirigoien, 7 LAZKAO

txekin
 www.txekin.net

Zu ere txirrindularitzan, ziklo-krosean aritu zinen gaztetan. Orain bi seme-ek ere bide bera hartu du-te. Zer sentitzen da?

Ez dakit. Nik ez nuen nahi semeek txirrindularitzarekin segitzea. Biak ere pelotan ondo ibiltzen ziren eta nahiago nuen pelotari tira egitea. Baina txikitatik txirrindularitza bizi izan dute eta nik uste horregatik jarraitu dutela.

Zergatik ez zenuen nahi semeek txirrindularitzan jarraitzerik?

Nahiko kirol gogorra dela-ko. Nahiago nuen beste edozein kirol, pelota bera adibidez, suabeagoa da.


Zu, Jose Ramon, Nola ha-si zinen ziklo-krosean?

Gehienbat, herriko Iñaki Maiora ikusita. Eskolatik egunero ikusten genuen nola jaisten zen, eskolaren gaikaldean bizi zen eta. Herriko festetan lasterketak ere izaten ziren herrian. Ni ere pelotan ere ibiltzen nintzen baina...

Zuk ere orduan txirrindularitzaren aldeko apus-tua egin zenuen...

Bai, baina orduan ez zegoen pelota gaur egun dagoen egoeran, ziklo-krosa bera baino okerrago zegoen. Pelota asko aldatu da telebista sartu denetik. Behin maila batetik gora, biak ez dira bateragarriak, aukeratu beharra dago.

Zein da gogorragoa, erre-pidea ala ziklo-krosa?



Orbea, Salgar, Scania eta Tekka taldeetan ibili zen Jose Ramon Izagirre. Gipuzkoako, Euskadiko eta Espainiako txapelketetan 13 txapel lortua da. 10 bat urtetan Munduko Ziklo-kros txapelketetan parte hartu zuen.

Biak dira gogorrak baina errepidekoa oraindik ere gogorragoa da, ordu gehiago dira eta. Ziklo-krosa laburragoa da, ordubetea topera ibili behar da, erloju kontrako proba bat bezala da. Errepidea oso sakrifika-tua da.

Profesionalerako saltoa ematen ez zinen ausartu.

Bai, afizionatuak arte aritu nintzen. Gero Orbeak profesionalerako taldea atera zuen eta ez nuen jarraitu. Ni ordurako lanean nenbilen eta beldurra eman zidan.

Semeen entrenatzailea al zara?

Ez, ez. Hauen prestakuntzak mediku batek zuzentzen ditu eta nik aholkuak bakarrik ematen dizkiet. Ez naiz asko sartzen, azken batean, ez dakidalako. Gu lehen batere prestakuntzarik gabe ibiltzen ginen, gure kasa ibiltzen ginen.

Material aldetik-eta aldatu al da ziklo krosa?

Bai, dezente. Gaur egungo bizikletak arinagoak dira, baina gure garaian ere baziren bizikleta onak. Niretzat gehiena, pedalak aldatu di-

Dirutan, gure garaian baino askoz ere sari txikiagoak daude gaur egun.

ra. Gaur egun automatikoak dira, eta gure garaian kala-pieak izaten ziren. Hor ibiltzen ginen kalapieak ezin sartu, kolpeka.

Kanbioak ere aldatu dira. Orain manillarrean egoten dira lehen, koadroan. Niretzat ezberdintasunik handiena pedaletan dago. Gaur egungo pedalak, bi aldetatik berdinak dira eta era batera edo bestera zapaldu eta hanka ondo sartzen da.

Zuen garaian, goierritar taldetxo bat bazineten.

Iñaki Maiora, Gabiriko Izuzkiza, Zumarragako Soraluze eta Iurrebaso, Itsasondoko Jokin Mujika... Maila berdintsuan ibiltzen ginen eta karreretan penatu handiagoa hartzen genuen. Koadrilen artean gainera, pikeak egoten ziren, pike sanoak. Batez ere koadrila arteko pikeak izaten ziren. Gaur egun ere, Gipuzkoan, ziklo-krosean dagoen apurra, Goierri dago.

Logela, egongela eta sukaldeko altzari nahiz osagarrietan aukera paregabea

Altzariak neurritan

Mota guztietako aroztegi lanak

PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

943 16 40 40 - 639 631 640 faxa: 943 16 47 47

Antzizar-Katea, 5 BEASAIN

PSIKOLOGI KLINIKOA

Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/01

AURRE ZITA 943 887 221 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

kudeaketa

fiskala

kontablea

merkatala

laborala

zerbitzuak

Tel 943 88 44 00

Faxa 943 80 51 27

www.biokzerbitzuak.com

Ordizia Goierri, 12

Enbor bereko ezpalak

Aitaren bide ber-bera egiten ari dira momentuz behintzat, Gorka eta Jon. Pelotan biak ere itxuran ibiltzen baziren ere, txirrindularitzaren aldeko apustua egin dute.

Neguan ziklo-krosean aritzen dira eta gainerakoan errepidean. Jonek zehaztu duenez, “neguan ziklo-krosean ibiltzeko prestatzen gara. Ziklo-kroseko denboraldia bukatzen denean, pare bat asteko atsedena egiten dugu, eta gero berriz ere errepiderako entrenatzen hasten gara”. Biak ere osagarriak direla uste dute. “Nik aurtan adibidez, prestatuntza bezala egin dut”, dio Gorkak. Jonek berriz, “topera egin dut, jubeniletan ez da asko antzematen eta. Errepiderako ondo etortzen da”.

Entrenamenduak

Ziklo-kroserako entrenamenduak, gehienbat errepidean egiten dituzte. Hori bai, mendialdean badute ziklo-krosean aritzeko zirkuitu bat prestatuta, serieak egiteko. Jonek gaineratu duenez, hasi aurretik eta bukatu ondoren, luzaketak ondo egitea oso garrantzitsua da. Jose Ramonek hori oso kontuan izaten zuen bere garaian ere. “Maiorak guri ondo erakutsi zigun hori. Oso garrantzitsua da”.

Emaitezkin gustura

Denboraldia bukatzen ari da eta gustura daude aurtengo emaitzekin. Jonek, jubeniletan, 4 lasterketa irabazi ditu, tartean, Gipuzko-



Gorka, Donostiako Azpiru taldean ari da afizionatueta lehenengo mialan. Jon, berriz, Caja Rural taldean dabil, jubenil mailan.

ako txapelketa. Espainiako txapelketan 3. egin zuen.

Gorkak aurtan afizionatuetaarako saltoa eman du eta maila aldaketa handia somatu du. Dena den, gustura dago aurtengo emaitzekin. “Ez naiz hain gaizki ere ibili, gustura ibili naiz. Ia lasterketa guztietan lehenengo hamarretan sartu naiz. Batean bigarren egin nuen. Asteasuko nazioarteko proban 6. egin nuen”.

Ziklo-kros denboraldia amaitu eta martxoan hasiko dute errepidekoa. Helburuak galdetuta, Gorkak, karrierak bukatzea du helbu-

ru, “hori eginda, lasai. Afizionatueta maila handia dago eta lepoa luzatuta ibili beharko naiz”.

Jonek gustura ibiltzea du helburu, eta “probaren batean edo bestetan aurre samarrean ibiltzea”.

Helburuetan aurrerago joanez, txirrindulari bezala, ahalik eta gorenaren iristea dute biek helburu, nahiz eta profesionaletaraino iristea gero eta zailagoa da.

Jose Ramonek argi dauka gaur egun profesionaletaraino iristea oso zaila dela, eta ikastearen garrantzia barneratu nahi die semeei.

“Niri ere hala esaten zidaten baina ni orduan ere burugorria izan eta 14 urterekin lanean hasi nintzen”, aitortu du. Profesionaletara salto egiteko aukera izan zuen Jose Ramonek baina ez zen ausartu. Beraz, “gu lanean ibiltzen ginen eta behin maila bat hartuta zaila izaten zen gorago egitea. Horretara dedikatu behar da hobetzeko, bestela ezin da. Orain ere, Seco horretara dedikatu da eta besteek baino maila hobea dauka. Unai Yus izan ezik, besteak lanean edo ikasten ari dira”, argitu du.

Lokatza garbitzaileak

Aitak aholkulari papera ondo betetzen du baina beste lan bat ere badu, amarekin batera: bizikletako lokatzak garbitzea aitaren lana da eta arropatakoa, amarena.

Gorka afizionatueta lehenengo mailan dabil eta Jon, jubeniletan.



kutxa

gizarte ekintza



Jose Ramon Izagirre

43 urte

Txirrindulari bat:

Errepidean Bernard Hinault eta ziklo-krosetan Zeifer.

Proba bat:

Espainiako txapelketak.

Inoiz ahaztuko ez duzun proba bat:

Soldaduskan nengoenean, Santandaren irabazitako Espainiako txapelketa.

Txirrindularitzaz gain beste kirol bat:

Orain, ehiza.

Lokatza edo lehorra:

Lehorra, azkarra.



Gorka Izagirre

18 urte

Txirrindulari bat:

Errepidean Ulricht eta ziklo-krosetan, Nijs.

Proba bat:

Asteasukoa.

Inoiz ahaztuko ez duzun proba bat:

Kadeteetan, Asturiasen irabazitako Espainiako txapelketa.

Txirrindularitzaz gain beste kirol bat:

Pelota.

Lokatza edo lehorra:

Ondo prestatuta egonez gero, lehorra nahiago izaten dut eta gutxiago prestatuta egonez gero, lokatza nahiago.

Lasterketa aurreko gosaria:

Pasta, tortila... Aurten, umeen papila probatu dugu, goxoa izaten da.



Jon Izagirre

16 urte

Txirrindulari bat:

Errepidean Migel Indurain eta ziklo-krosetan, Wellens.

Proba bat:

Ziklo-krosetan Ormaiztegiakoa.

Inoiz ahaztuko ez duzun proba bat:

Orain dela hamabost eguneko Muxikako proba. Irabazi eta izugarrizko ilusioa egin zidan.

Txirrindularitzaz gain beste kirol bat:

Pelota.

Lokatza edo lehorra:

Lehorra, Euskal Herrian horrelako gutxi dago baino.

Lasterketa aurreko gosaria:

Tortila frantsesaren bat edo pasta pixka bat, hasi baino bi edo hiru ordu lehenago.

- ✕ Jabekideen komunitatea osatzea
- ✕ Komunitateen kontabilitatea
- ✕ Akten idazketa
- ✕ Aurrekontuen eskaera
- ✕ Aholkularitza legala
- ✕ 24 orduko asistentzia
- ✕ e.a.



Komunitateen administrazioa

Kol. Zenb. 599

Urdaneta 52-behea

ORDIZIA

Tel.: 943 087 486



RENAULT
LAZKAO GARAJEA

Tel.: 943 882 442 / 943 888 901 Faxe: 943 888 901
Senpere Industrialdea LAZKAO

Ikaskide
irakaskuntza zerbitzuak

Joan Iturralde, 5
943 160 120
Beasain
www.ikaskide.net

INGELERA MINTZA PRAKTIKA

- ✓ Maila guztiak
- ✓ Talde txikiak
- ✓ Cambridge azterketak:
KET, PET, FIRST CERTIFICATE...

Oroimena eta tradizioa berreskuratuz

Artilezko kapusaia eta mantarrak

Zaldibiako Peio Arruabarrena eta Karmele Aduriz, senar-emazteak, tresna zaharrak biltzen zaleak dira. Gure historia eta kultura eza gutzen ere bai. Oraingoan, gure kulturako beste zati txiki bat berreskuratzen eta ikertzen ari dira: garai batean artzainek erabiltzen zituzten artilezko kapak eta mantarrak.

Beraien etxearen izenetik abiatu dira ondorengo ikerketan. Zaldibiako Kapandegi etxetik alegia. "Izenak berak dioen bezala, kapak egiten zituen lekua izango zen. Juan Garmendia Larrañagak liburu batean biltzen du, Fermin Leiza-



Kapusaiaren patroia eginda daukate Peio Arruabarrena eta Karmele Adurizek.

olak ere hala baieztatu digu. Zaldibian bazirela dio. Historialariak ez gara baina handik eta hemendik informazioa biltzen ari gara". Informazioa han eta hemen bilatzen saiatzen ari dira. Zerbait aurkitu dute eta dagoeneko, kapusaiaren patroia ere egin dute. Orain, haria egiten ari dira, kapusaia egiteko. "Mantarekin egin dugu patroia. Orain artilez tela egiten ari gara, hari asko behar baita", esan digute.

Kapusaia edo kapa

Eskuz artile ilunez eginda-koak dira. Ahuntzazaleek eta artzainek erabiltzen zuten kapa. Eguneroko ohiko

arroparen gainetik janzen zen kapusaia, artilezko oihalek eta larruzko abarkek osatzen zuten Euskal Herriko toki menditsuetan ardi eta ahuntzak zaintzen lan egiten zuen sektore batek erabilitako janzkia. Frantziar Estatuko hainbat zonaldean ere (Landetan eta Biarnon, itxuran eta oihalaren kolorean aldatuta batzuk azaltzen dituzte), hotza eta euritik babesteko erabiltzen ziren. Oihala zonaldean bertan sortzen zen ehungile etxeetan, latxa ardiaren kolore iluneko artiletik abiatuz eratzen erraza zenez, familia berak josten zuen. Baina tradizioak dioenez, antzina, artzainek be-

raiek sortzen omen zuten oihala, goitik beherako ehungailu txikietan, harrizko pisua jarrita historiaurrekoen antzera.

Mantarrak

Abarkak janzen direnean, orkatiletik belaurera doan oin-zatia estaltzen duen oihala da mantarra. Peio Arruabarrenak adierazi digunez, "abarkak mantarrekin ibiltzen zituzten. Guk mantarrak, beti, praken azpitik erabili izan genituen; baina liburuetan azaltzen denez, praken gainetik erabiltzen zituzten, polainak bezala. Nafarroako Herri batzutan, gainera, polaina deitzen diote mantarrari".

Museo txikia

Peio Arruabarrena eta Karmele Adurizek Zaldibiako Kapandegi etxea erosi (Iztuetarena izan zen etxea) eta goitik behera berritu eta museo txiki bihurtzen ari dira poliki-poliki. Gure arbasoek erabili izan dituzten tresnak bildu, txukundu eta erakusteko prestatzen dituzte, galdutakoa berreskuratu nahian. Lihoaren prozesua, artzain tresnak... denetarik daukate ikusgai.



Egurrezko lehioak, kontraleihoak, atea eta eskailerak neurria.



JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ

Tfnoa.: 943 67 36 11 Faxe: 943 67 36 55
Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa 20491 LEABURU

Olagi

Sagardotegia
Jatetxea

Urte guztian zabalik
Eguneroko menua
Karta
Sagardotegiko mea



© 943 88 77 26 ALTZAGA



F.M. 89.2

EGUNEKO 24 ORDUAK ZUREKIN



Haurtzaindegia (0-3), ludoteka eta jangela.

Urte guztian zabalik (abuztuan salbu).
Hezkuntza proiektuan txertatutako
proiektua. CAF-eko langileentzat
%20ko beherapena. Eusko Jaurlaritzak
familiarentzako bideratzen dituen
laguntzetako bitartekari.



Mundua irakurtzen, interpretatzen eta sortzen

erakusteko, euskaltzale eta eleanitz
izango diren ikasleak. Ingelesa 4
urtetik aurrera. Lehen Hezkuntza 4.
mailatik aurrera frantsesa.



Izateko sortu eta sortzeko izan.

Irakurketa-idazketa, matematika
eta oro har edukietan trebatzeaz gain
harremanetan eta sormenean eragiten
duen irakaskuntza. Egoten eta egiten
ikasteko.



Matrikula-kanpainako aurkezpen datak:

Otsailaren 8an, arratsaldeko 6etan.
Beste egun batean nahi izanez
gero, aldeztu aurretik deitu.
Aurkezpen egunean, haurtzaindegi
zerbitzua izango da.

Zepai bertsolaria jaio zela 100 urte

Akilino Izagirre Amenabar, Azpeitian jaio zen 1906ko urtarrilaren 15ean. Errezilgo 'Zepai' baserrian bizi zen. Lanbidez, baso-mutil, hargin, tabernari eta Donostiako garagardo-lantegiko langilea izan zen. 1935 eta 1936ko txapelketa nagusietan parte hartu zuen. Umore bikainekoa eta ahots ederrekoa, ospe handiko bertsolaria izan zen.

Idiazabala ezkontdua

Zepai gaztetan baso-lanean jarduna zen. Baina gero hargin ikasi zuen. Donostiako zerbezerian ere lan egin zuen. Bost bat urte egin zituen bertan, Uztapide lagun zuela. Antiguako bertsozaleak ondo gogoan dituzte oraindik ere bertsolari hauen garaiko bertso-saioak.

Zepai, Urtsuarango Agustina Mujika Intxaustirekin ezkontu zen, 1946ko urtarrilaren 31n. Seme bakarra izan zuten, Alejandro, 1946ko azaroaren 15ean jaioa.

Urte bereko apirilean taberna ireki zuten Idiazabalen bertan. Antonio Zabalak Auspoaren Liburutegiaren barruan argitaratutako liburuan biltzen duenez, Basarrik honela idatzi zuen Zepairen tabernaz: "Oso eza-



guna zen Zepairen etxea: jantoki ona, ostatu ona. Biltzen zuen kamiotako txofer jendeak, eta txofer asko sartzen den tokia ez da jantoki txarra izaten. Txoferrak jakiten dute ondoen bazter guztietako berri".

Bertsotan gazterik hasia

Gazte samarretik hasi zen bertsotan. 1935ean eta 1936an 'Lenengo ta Bigarren Bertsolari-eguna' ospatu ziren. Zepaik ere kantatu zuen, eta bietan hirugarren gelditu zen. Antonio Zabalak dioenez, orduan Euskal Herri guztiak ezagutu zuen bertsolari hau.

Iñaki Eizmendi 'Basarrik' gertutik ezagutu izan zuen Zepai eta Antonio Zabalak bildu bezala, honela deskribatzen du Zepai bertsolaria:

"Gazterik hasi zen nabarmentzen bertsolari mo-

dura. Urte gutxian oso sonatu egin zen Zepai.

Eztarri indartsua zuen ikaragarri: boza handiko bertsolaria zen. Garai haietan ez zen izaten mikrofonorik eta altabozik. Plaza librean kantatzeko alderdi handia zen boza garbiaren jabe izatea.

Zepairen zenbait bertso ta Zepairen ateraldi asko, batez ere, nekez ahaztuko dira.

Herriak ikasi zituen, eta herriak behin ikasten duena, ezpainetik ezpainera jotzen da zabalduaz. Umorea saltzeko zuen, eta gusto samarreko tokian bildutakoa, benetako pestak egiten genituen harekin.

Hamaika parre-argara eder eraginarazi zidan niri bere denboran. Haiek gozamenak hartzen genituen harekin biltzen ginenean!

Txirrita, Gaztelu eta Frantsesa hil zirenean, hutsune handia izan zen Euskal Herrian; bertsolari hutsunea, alegia.

Txapel eta Zepai bi koinatuak izan ziren okerra erremediatu zutenak.

Deiak jasotzen hasi ziren herri batetik eta bestetik. Joan eta kantatu egiten zuten.

Bertsolaritzak betiko galdu behar zuela zirudien denbora triste haietan, bi gi-

zon hauek ahalegindu ziren eusten. Ez zen itzali su guztia, hauei esker.

Geroxeago lagun Uztapidek eta biok urte asko egin genituen elkarrekin herriz herri, haien bideari jarraituaz".

Antonio Zabalak eman-dako datuen arabera, beharbada, Donostiako Loiolan egin zituen jendearen aurrean azkeneko bi saioak. San Inazio egunez urtero jotzen zen, Uztapide eta Arozamenarekin bertsotan egitera.

Zepai bertsolaria Santia go bezperan, 1971ko uztailaren 24an, hil zen, gibeledko gaitz txar batek jota.

Hiletetan Basarrik dioenez, "harrigarritzko jendetza Idiazabalgo eliz nagusian. Alde guztietako bertsozale zintzoak han bildu zirela esan behar. Zenbat aurpegi ezagun! Zenbat tokitako jendea gero!"

Hildakoaren iloba, On Migel Eizmendi Txapel bertsolari zenaren semea izan zen, meza-emale.

Meza santua eskaintzeko denboran, Jose Lizaso, Uztapide, Jose Agirre, Etxeberria, Batista Kortajarena, Lazkao Txiki, Imanol Lazkano, Basarri eta Mitxelena bertsolariak igo ziren aldarera eta bakoitzak bertso bana kantatu zuen.

Arraiak parrilan

© 943 65 21 76

ZALBIDE

TOLARE SAGARDOEGIA

ABALTZISKETA



Goierri tarra

etxean jasotzeko laguntzaile txartela

Txartel hau betetzen dutenei urtean 15 euro kobratuko zaizkie posta gastuak ordaintzeko

Izen-abizenak:

Helbidea:

Herria: Tfnoa:

NAN:

Kontu zenbakia (20 digitu):

Bidali txartel hau helbide honetara: **Goierri tarra, Urbialde plaza, 7 behe, Beasain**

Beasain

Haur jolas ikastaroa

Urtxintxa aisialdi eskolaren eskutik, guraso eta hezitzaileentzako, haur jolasen ikastaroa izango da urtarilaren 31n, otsailaren 7an eta 9an, Urbietan etxeko gazte topagunean, arratsaldeko 5etatik 7etara. 12 euroko matrikula ordaindu beharko da eta izena emateko epea, urtarilaren 27an amaituko da, 943028100 telefono zenbakian edo ebpn@beasain.net helbidean.

Ikastaroa euskaraz izango da eta oso egokia da, batez ere, haur txikiak dituzten gurasoentzat eta hezitzaileentzat, baina interesa duen edonork parte har dezake. Gainera, ikastaroan parte hartzen dutenei, Urtxintxa eskolak argitaratutako Euskal Jolasen liburuxka bana emango zaie.

Andoni Egañaren hitzaldia

Ahozkotasunaren inguruko hitzaldia eskainiko du Andoni Egaña, otsailaren 2an, Udaletxeko Batzar aretoan, 19:00etan. "Pertsonen arteko komunikazioa ahozko adierazpideen bitartez gauzatzen da, eta gehienetan, eta garrantzitsua da esan nahi dugun hura harzailleari eragiteko moduan esatea".

Zaldibia

Bertso-saioa

Urtarrilaren 27an, gaueko 10,30ak aldean, Joxepanen, bertso-saioa izango da. Amaia Agirre, Aitor Sarriegi, Jokin Uranga eta Iñigo Manzisidor 'Mantxi' arituko dira bat-batean, Saroi Jauregi gai-jartzailearen esanetara.



Beasain

Beasain idazlehiaketako saribanaketa

Otsailaren 4an, Udaletxeko Batzar Aretoan, eguerdiko 12etan, haur eta gaztetxoek literatura sormenerako Beasain idazlehiaketako sari banaketa egingo da.



**SAN BENITO
IKASTOLA
LAZKAO**

www.sanbenitoikastola.com

✍ Heziketa integrala

✍ Eleanitza

✍ Euskara eta euskal kulturaren transmisioa

✍ Proiektu berritzaileak

✍ Batxilergoa bertan

✍ Kalitatezko hezkuntza

✍ Proiektuarekin identifikatutako irakasle talde finkoa

✍ Zerbitzu eskaintza zabala

JANGELA



KIROLAK



TEKNOLOGIA
GELA

GARRAIOA



TRIKITIXA
ESKOLA




LABORATEGIAK

ORDUTEGI
ZABALA



GURASO
ESKOLA



PSIKOMOTRIZI-
DADE GELA

HIZKUNTZA ES-
KOLA



IRRATI
TAILERRA



GARUNEN
SUSPERTZE
GOIZTIARRA

INGELES
UDALEKUAK



INFORMATIKA



EUSKARAZ
BIZI



Euskadi enparantza z/g 20210 LAZKAO

e-mail: lazkaio@ikastola.net

telefonoa: 943 880 800

Faxa: 943 881 816

IBILGAILUAK

salgai

Opel Ascona autoa salgai.
SS-W. 300 euro. 646418932.

Mercedes Vito 110 D furgoneta salgai. 97an matrikulatua. Egoera onean. 4.500 euro. 646915961.

Golf TDI autoa salgai, NA-AS, egoera oso onean, extrekin. 649052806.

Audi A-4 salgai, 1.9 tdi. SS-BC. 665713003 - 635753703.

Nissan Terrano II salgai. 11 urtekoa. Egoera onean. 615703430.

Ford Transit kutxaduna salgai. MMA 3500 kg. 6 urte. Egoera paregabea. 605725903.

PABILOIAK

errentan eman

Ordizian, Eroski ondoan, pabilioia alokatzen da, 150 m². 615787097.

Beasaingo Salbatoren, 300 m²ko pabilioia errentan ematen da. Ekipatua. 662331550.

GALDUTAKO OBJEKTUAK

Emakumezko eskularru beltzak galdu nituen abenduaren 20tik 23ra bitartean, Lazkao, Ordizia eta Zaldibia artean. 943161828.

ETXEBIZITZAK

salgai

Donostian, Antigua auzoan (Gurutze) etxea salgai. 2 logela, komuna, sukalde handia, 2 terraza, berogailua. Igogailurik gabe. 56.000.000 pezeta. www.orbaraetxe.com. 605766057.

errentan hartu

Goierriin, pisua alokatu nahi du haurrak dituen senar-emazte bikote batek. 20:00etatik aurrera deitu. 652757877 - 697717189.

elkarbanatzeko

Donostian, Antigua auzoan, pisua osatzeko pertsona bat behar da. 225 euro. 657733455. Nekane.

Urretxu edo Zumarragan pisua konpartituko nuke. 652729563.

GARAJEAK

errentan eman

Ordizia erdialdean, garaje itxia alokatzen da. 665756560.

Ordizian, Josetxo Sporteko etxe berrian, garajea alokatzen da. Garajea goiko solairuan dago. Saltzeko eskaintzak ere entzuten dira. 635746967.

Beasain erdian, garaje itxia alokatzen da. 943801164.

ANIMALIAK

opari

4 txakurkume oparitzen dira, artzain txakur antzekoak. 667827327.

Artzain txakurkumea opari. 3 hilabeteko. 666045015. 17:00etatik 21:00eara deitu.



Lan bertikalak S.L.
Tfnoa.: 605 712 018
Ezkurdiategi Etxea ATAUN

Kanaloiak
Bajanteak
Fatxadak
Pintura
Teilatuak
Tximiniak
...





BESTELAKOAK

salgai

Jangelako altzariak salgai: mahaia, 6 aulki eta bitrinadun armarioa. Onak. Prezio interesgarria. 943087907. Eguerdian edo iluntzean deitu.

Elurretako kateak salgai, Spiker-spider. 943085206.

Zurezko sehaska salgai. Oso egoera onean. 125 euro. 20:00etatik 22:00etara deitu. 655731279.

Komuneko altzariak salgai. Zuriak eta gereziondo kolorekoak. Oso egoera onean. 943085206.

Ordenagailua, Windows XP, salgai. 3 urtekoa. 675710799.

Sofa berri-berria salgai. 'Txafan' edo 'Eskiner' deitzen zaie. Urtebete dauka. 700 euro. 667326707 (arratsaldean).

Aspes arropa garbigailua salgai. Egoera onean. 130 euro. 657777042.

LANA

eskaerak

Etxeko lanak egiteko emakume bat behar da, kotxearekin. 670208831 - 943887187.

Tabernaria behar da Ordiziako taberna batean lan egiteko. Ahal bada euskalduna eta esperientziaduna. Langilea. 687609093.

Gabinete psikopedagogikoak lizentziatua behar du ikasketa oztopoetan aritua. Bidali kurrikulumak, Ordiziako 61. posta-kutxara.

Zerbitzaria behar da erretegi batean lan egiteko. 615700408.

Dendan lan egiteko, pertsona euskalduna behar da. 658744184.

Dantza irakaslea behar du Ordiziako Urdaneta dantza taldeak. Astean 6 ordurako. 658749379.

eskaintzak

Enpresaritzan lizentziatutako neska bulegoko lanak egiteko prest dago. 610369746.

Neska gaztea eskaintzen da etxeko lanak egin edo adineko pertsonak zaintzeko. 610369746.

Emakumezkoa prest dago, ontziak garbitzeko, tabernak garbitzeko, haurrak edo adineko pertsonak zaintzeko. 630254643.

Errumaniar emakumezkoa edozein lan egiteko prest dago, Ordizian, astelehenetik ostiralera, goizeko 8etatik arratsaldeko 6etara. 687036580. Pape-rak arautuak.

Emakumezkoa prest dago gauetan adineko pertsonak zaintzeko. Esperientziaduna. 616889923.

Emakumezkoa, ibilgailuarekin, prest dago garbiketarako, adineko pertsonak zaintzeko edo mezulari lanerako. 678781985 - 943027226.

Neska arduratsua eskaintzen da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. 660635956.

Adineko pertsonak zaintzeko prest nago, arratsaldeko 8etatik goizeko 9etara. 617769791.

Magisteritza ikasitako neska euskaldun batek, arratsaldean haurrak zainduko lituzke. Arratsaldetan deitu. 650115451.

Neska arduratsua eskaintzen da etxeko lanak egin, umeak zaindu eta adinekoak zaintzeko. 647896460.



BARANDIARAN
zeramikak

ERREF. MAK DISEINUA PROIEKTUAK BAINUA HIDROMASAJU

SEMPERE KALEA, 7, 1. LOKALA BEASAIN
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com



Matxinbentako santa eskeko taldea, 1948ko otsailaren 4an

Aloña Mendigurenek utzi digun argazkia duela 58 urte La Voz de España egunkarian kaleratu zuten. Hemen dituzue denen izenak eta hesi artean bakoitza zein baserritakoa den.

Atzean, ezkerretik eskuinera: Sebastian Lasa (Itxaso-Errota), Joxe Zabaleta (Zuaneta), Juanito Lasa (Zuaneta), Jesse Inazio Mendia (Irutxa) eta Juan Joxe Mendia (Irutxa).

Aurrean: Antonio Aranburu (Ixuela), Joxe Lizaso bertsolaria, Hilario soinujolea (Santamañako Segoetxe), Joxe Lasa (Ixuela) eta Joxe Gurrutxaga (Paola).

Arkupe

ETXERAKO OIHAL ETA OSAGIAK

J. M. Barandiaran plaza - Tel.: 943 88 00 84 - ORDIZIA

Ikaskide

irakaskuntza zerbitzuak

Joan Iturralde, 5
solairuartera
943 160 120
Beasain
ikaskide@ikaskide.net
www.ikaskide.net

ESKOLA LAGUNTZA
INFORMATIKA
INGELERA

ENPRESARITZA: ✓ Finantza matematika
✓ Estatistika
✓ Kontabilitatea
✓ Kalkulua, etab.

IÑAKI ARIN

Aseguruak



☎ 943 888 702

Oriako Pasealekua, 20

B E A S A I N

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

**Goierritarrentzako
mediku zerbitzu espezializatuak**

Ordua eskatzeko tfnoa: 943 08 55 60

Faxa: 943 08 55 61

Nafarroa Etorbidea, 25 - 2.

BEASAIN



URDANETA AH

Intxausti Plaza z/g.

Tel.: 943 88 27 80

Faxa: 943 80 53 10

012279aa@hezkuntza.net

www.urdanetaikastetxea.org

OIANGUREN BHI

Altamira Auzoa z/g.

Tel.: 943 88 08 62

Faxa: 943 16 41 21

012282aa@hezkuntza.net

www.oianguren.net



ORDIZIAKO ESKOLA PUBLIKOA

Aukeratu zeurea guztiona

HAUR HEZKUNTZA

Artile laranja 9 cent

Artile urdin argio 2 cent

Artile urdin iluna 3 cent

LEHEN HEZKUNTZA

Artile turkesa 10 cent

Artile arrosa 8 cent

Artile horia 4 cent

DBH

Artile berde argia 5 cent

Artile berde iluna 6 cent

BATXILERGOAK

Artile moratua 7 cent

Artile txuria 20 cent

HEZIKETA ZIKLOAK



Artile granatea 5 cent

Artile gorria 6 cent

3 eraikin
1 proiektu

Urdaneta - Oianguren eskola euskalduna, anitza eta parte hartzea bultzatzen duena da.

Gure hezkuntza proiektua pertsonen heziketa osoan oinarritzen da, bakoitzaren izaera eta egoera kontuan hartuz.





Orain Zaldibian

Elbarrena industrialdean

Tel.: 943 888 232

Gipuzkoako mozerro dendarik handiena

